



Parrokixako korua 1929 aldera



Ezta, ez, atzo goizekua San Migel parrokixako korua. Makiña bat kantore eta tiple pasau izan da elizako kanta-talde horretatik gure goguenian. Baiña gure aurretik be izan ziran, jakiña, meza nagusixak, entierruak, bezperak, bederatziruarenak, maiatzeko lorak edota beste elizkizun eta prozosiño batzuk dotoretaketo kantuan jardundako herriarrak. Hori bai, danak gizakumiak. Orain emakumiak noizian behin koruan kantaiten ikusten badittugu, sasue batian zihero debekauta eukain korura igotia. Dana dala, 1924an *Santa Zezilia* izeneko orfeoa sortu eben Don Jabier Arregi organistiak, baiña ez elizako koruan kantaitteko.

Nahiz eta gaur egun hala ez izan, lehenago parrokixako organistia izaten zan gehixenetan koruaren zuzendarixa. Gure mutiko-denpora guztian eta geruago be **Julian Zelaia** ezagutu geben zeregin horretan. Gerra aurretik, baiña, normalian abadiak izaten ziran organista-zuzendarixak. Banaka batzuk aittakatiarren. **Frantzisko Esnal** musikagile ospetsua, **Jesus Maria Olai-zola** edo **Jabier Arregi** abade jaunak. Azkenengo hau da gaurko fotografixan direktore moduan agerketan dana. Bera inguraketan dagozen gainerako korukidiak honeitxek ditzuzue ezkerretik eskumara eta goititik behera:

Goixeneko illaran: Joxe **Madina**, Atzeko kaleko *Txurrukanekua*; X. X.; Manuel **Guridi**, Kale Zaharrekoa; Pedro **Ugar-te**, Kale Barriko *Fondakua*; Felix **Ibarrondo**, Plazakua; Luis **Guridi**, Kale Zaharrekoa; Luxiano **Igartua**, San Antue kalekoa; X. X.; eta Anjel **Ortiz**, Kale Zaharrekoa.

Laugarren illaran: Rodrigo **Astigarraga**, postiairen onduan; X. X., erdi tapauta; Bernardino **Leturia**, Kale Barriko *Luka-senekua*; Jexus **Galdos**, Kale Barriko *Zenizerokua*; Felipe **Igartua**, San Antue kalekoa; Pablo **Etxeberría**; Agustín **Uran-ga**; Anjel **Mendiola**, Kale Zaharrekoa; Juanito **Ortiz**, Kale Zaharrekoa; Leandro **Elorza**, San Juan kaleko *Txinpartane-kua*; eta Tomas **Ugarte**, San Juan kalekoa.

Hirugarren illaran: Teofilo **Agirrezabal**, *Aitzekua*; Joxe Mari **Letamendi**, Plazakua; X. X.; X. X., erdi tapautakua; Jesus Maria **Olaizola** abade zumaixarra, 1917-1919 bittartian Oñatin organista egondakua; Jabier **Arregi** abadia, parrokixako organistia eta koruaren zuzendarixa; Periko **Oleaga**, Zubibarríkua; Leonardo **Zabaleta**, parrokixako abade oñatiarra; Eujenio **Madina**, Atzeko kaleko *Txurrukanekua*; Prudentzio **Zulueta**, Kale Zaharrekoa; eta X. X., erdi tapautako tripla. **Bjgarren illarako mutikua:** Migel **Azpiazu**, Kale Barrikoa, erdi makurtuta; Benigno **Anduaga**, Mendiko kalekoa; Jabier **Urrestarazu**; Bittorin **Zelaia**, Atzeko kalekoa; Bittor **Maitzegi**; Joxe Mari **Madinazkoitia**, Kale Zaharrekoa; Antonio **Mendiola**, Kale Zaharrekoa; Joxe Mari **Arrieta**; honen atzian dagozen mutiko bixak ezzagunak. **Aurreneko illarako hirurak:** Rufino **Erostarbe**, Kale Zaharrekoa; Antonio **Zumalde**; eta X. X.

Fotografixia unibersidadeko klausturan atarata dago 1929 aldera. Urte haretan fan zan Don Jabier Arregi bertestegiarra. Oñatiko San Migel parrokixan hamar bat urtian organista-zuzendari zereginetan jardun ondoren, Donostiako Artzain Onaren elizara antzeko lanarekin. Bere despedidako argazkixa izan leike. Handik hillabete batzuetara etorri zan gure artera bere ordezkua: **Asentzio Zabala** abade jauna, Foruko semia, 1936ra arte hemen egon zana.

J. E.

Argazkixa Lukaseneko Leturia-Arrazola familixiak itxittakua da. Argibidiak, berriz, Joxe Ugarte, Regino Blain, Pilar Barrena eta Sabino Zuazabeitiak eskuratu doskue. Eskerrik asko danoil!